

JAKINARAZTEN DA Alkateak 2025eko otsailaren 27an, ondorengo Dekretu hau eman duela:

“Bergarako Udalak Kontratazio eta Zerbitzu Orokorretako Administrazio Orokorreko teknikariaren plaza lehiaketa-oposizio irekiaren sistemaren bidez betetzeko egindako deialdiaren oinarriak onartu zituen, 2023ko urriaren 30ean emandako alkate dekretuaren bidez. Prozesu osoan izandako emaitzak eta aurkeztutako erreklamazioen inguruan hartutako erabakiak kontutan izanda, epaimahaiak prozesuko behin betiko puntuazio orokorrak onartu zituen eta argitaratu zituen, eta beraz, horien arabera izendapen proposamena eta lan poltsa osatzeko proposamena egin zuen.

Horiek kontutan izanda, **ERABAKI DUT:**

LEHENENGOA: Kontratazio eta Zerbitzu Orokorretako Administrazio Orokorreko teknikaria izendatzeko hautaketa-prozesuko behin betiko puntuazio orokorrak onartzea.

BIGARRENA: Aritz Oteiza Lasagabaster (72XXXX85S) izangaia Kontratazio eta Zerbitzu Orokorretako Administrazio Orokorreko teknikari lanpostua betetzeko funtzionario praktikaldian izendatzea, sei (6) hilabeteko iraupenarekin.

Izendapena 2025eko martxoaren 1ean sartuko da indarrean, deialdiaren oinarrietan jasotako baldintza eta eraginekin.

Izendapen honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

HIRUGARRENA: Honako hurrenkera eta izangaiekin Administrazio Orokorreko Teknikarien lan-poltsa eratzea:

Ordena	NAN	Izena eta abizenak
1	72XXXX48Q	ENEKO MIRALLES OTAMENDI
2	72XXXX32J	HARITZ ETXEBERRIA BEREZIARTUA
3	78XXXX03A	ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ
4	72XXXX52S	AINHOA URIARTE TOTORIKAGUENA
5	79XXXX24N	ADRIAN ALVAREZ LAISECA

LAUGARRENA: Erabaki hau jakinaraztea Aritz Oteiza Lasagabaster jaunari eta Pertsonal Sailean. Halaber, jakinaraztea beste interesdunei, udaleko web-orrian eta iragarki-taulan argitaratuz eragin horretarako.”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea dago, jakinarazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki deritzon beste edozein errekurtsu ere jar daiteke.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan
IDAZKARIA

SE COMUNICA que el Alcalde el 27 de febrero de 2025 ha emitido el siguiente Decreto:

“El Ayuntamiento de Bergara, mediante Decreto de Alcaldía emitido el 30 de octubre de 2023, aprobó las bases reguladoras de la convocatoria para la provisión, mediante sistema de concurso-oposición libre, de la plaza de técnico/a municipal de Contratación y de Administración General de Servicios Generales.

Teniendo en cuenta los resultados obtenidos en todo el proceso y las resoluciones adoptadas en relación con las reclamaciones presentadas, el Tribunal aprobó y publicó las puntuaciones definitivas generales del proceso y, por lo tanto, realizó la propuesta de nombramiento de acuerdo con las mismas y la propuesta de constituir la bolsa de trabajo.

Teniendo en cuenta lo anterior, **HE RESUELTO**:

PRIMERO: Aprobar las puntuaciones generales definitivas del proceso selectivo para nombrar a el/la técnico/a de Contratación y de Administración General de Servicios Generales.

SEGUNDO: Nombrar funcionario en prácticas, con una duración de seis (6) meses, al aspirante Aritz Oteiza Lasagabaster (72XXXX85S) para la provisión del puesto de técnico/a de Contratación y de Administración General de Servicios Generales.

La entrada en vigor del nombramiento será el 1 de marzo de 2025, con las condiciones y efectos recogidos en las bases.

Publicar el anuncio de este nombramiento en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

TERCERO: Constituir la bolsa de trabajo de Técnicos/as de Administración General con el siguiente orden y personas aspirantes:

Orden	DNI	Nombre y apellidos
1	72XXXX48Q	ENEKO MIRALLES OTAMENDI
2	72XXXX32J	HARITZ ETXEBERRIA BEREZIARTUA
3	78XXXX03A	ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ
4	72XXXX52S	AINHOA URIARTE TOTORIKAGUENA
5	79XXXX24N	ADRIAN ALVAREZ LAISECA

CUARTO: Comunicar esta resolución al señor Aritz Oteiza Lasagabaster y al Departamento de Personal. Así mismo, comunicar a las demás personas interesadas mediante su publicación en la página web y en el tablón de anuncios a tal efecto.”

Recursos contra la resolución:

Contra la resolución que se notifica, y que es definitiva en vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de publicación de esta notificación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución que se notifica se podrá interponer RECURSO DE REPOSICIÓN ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de publicación de esta notificación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Todo ello sin perjuicio de que se pueda ejercitar cualquier otro recurso que se estime procedente.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS: *Todo ello conforme a lo dispuesto en los artículos 114.c, 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el artículo 8 de la Ley 29/1998 de 13 de julio reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa según redacción dada por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre y el art. 46 de la misma Ley así como el artículo 5 del Código Civil.*

En Bergara, a fecha de la firma electrónica
LA SECRETARIA

